



Berrien azterketa eta eztabaida ikasgelan

FITXA
44

Helburuak

- ELIKADURA-OHITUEN ETA ELIKADURA OSASUNGARRIAREN INGURUKO UNEAN UNEKO GAIK EZAGUTZEA.
- IKASLEAK GURE GIZARTEKO ELIKADURA-OHITURA BATZUEN ALDERDI NEGATIBOEN INGURUAN GOGOETA EGITERA BULTZATZEA.
- IKASLEEK OSASUNERAKO KALTEGARRIAK DIREN ELIKADURA-OHITUREN GAINEKO JARRERA KRITIKOA ETA HORIEK ALDATZEAREN ALDEKOA EDUKI DEZATEN LORTZEA.

Ikastaroak eta arloak/Eremuak/Materiak _____

Gomendatutako adina _____

DBHko 4. maila.

Gaztelania, euskara, atzerriko hizkuntza.

Hizkuntzen trataera integrala.

15-16 urteko ikasleak.

Jardueraren deskribapena/Metodologia _____

Jarduera horrek bi zati ditu: lehena etxean egingo da, eta albisteak ikertu eta aztertzea izango da. Bigarrena ikasgeletan egingo da (bereziki gaztelania, euskara edo atzerriko hizkuntzako eskoletan), eta aztertutako aktualitateko albisteak eztabaidatzea izango da.

1. **Etxeko ikerketa-lana:** ikasleek komunikabide desberdinetatik jarraitu beharko dituzte albisteak (telebista, irratia, egunkariak, aldizkariak edo plataforma digitalak), eta elikadura-ohitura osasungarriaren inguruko albisteak hautatu beharko dituzte (obesitate-indize handienak dituzten herrialdeak, gaur egungo eta etorkizuneko egoera, janari azkarra jateko ohituren eragina, etxetik kanpoko kontsumo-ohituren eragina, sasoiko elikagaien kontsumo-joerak, elikagai prozesatuen kontsumo-joerak...). Bilaketa ahalik eta ikuspegi objektiboena/zientifikoena eta ez hain "ideologizatua" duten hedabideetara bideratuko da, abiapuntuko distortsioak saihesteko eta horiek aztertzeko egiazko informazioa edukitzeko. Dokumentuen berrikuspen horren ondoren, jasotako informazioa ikuspegi kritiko batetik aztertu beharko dute, baita ikuspuntu akademiko batetik ere (irakasgaiaren irakasleak landu nahi duenaren arabera).



Aukeratu
osasuntsu jatea
Zu irabazle!



Elige
comer sano
¡Tú ganas!

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

2. **Aktualitatearen eztabaida ikasgelan:** hori egin aurretik, beharrezkoa da ikasleek jarduera horren dinamika ezagutzea (eztabaidaren kontzeptua irakasgaiaren parte izan ohi da; beraz, jarduera irakasgaiaren gai-zerrendarekin bat etor daiteke). Hobe da eztabaida irakasleak moderatzea. Ikasleek arreta gehien eman dieten ideiak azalduko dituzte eta beren ikuspuntua irizpideekin defendatuko dute (zergatik den garrantzitsua bizimodu osasungarria izatea, dieta orekatu eta osasungarriaren oinarriak zeintzuk diren, janari lasterrak gure gizartean zer eragin izango duen...).

Egutegi eredu/Iraupena _____

Etxeko lana: 2 saio (45 minutukoa).
Ikasgelako lana: saio bat (45 minutukoa).

Jarduera-eremua _____

Eskolako jantokia Etxea Ikasgela (Gaztelania, euskara edo atzerriko hizkuntzako eskola)

Beharrezko baliabideak _____

Giza baliabideak:

Irakaslea.

Materialak:

Edozein komunikazio-baliabide edo euskarri: aldizkariak, egunkariak, telebista, irratia, plataforma digitalak...

Ebaluazio-metodoa/Adierazleak _____

Ebaluazio jarraia bidez, ondorengo hau baloratuko da:

- Ikasleek elikadura-ohiturekin erlazionatutako aktualitateko berriak ikertu eta azertu dituzten.
- Ikasleek gai horien inguruko ezagutzak erakusten dituzten, gogoeta egiten duten eta kritiko diren.
- Ikasleek elikadura-ohitura kaltegarriak aldatzearen aldeko diren.

Informazio gehiagorako (aurretiazko esperientziak, material lagungarria, bibliografia...) _____

Material lagungarria:

- Egunkariak (El Correo, El País, Berria...).
- Aldizkariak (Muy interesante, National Geographic...).
- Telebista-kanalak (berriak, sukaldaritza-kanalak...).
- Irrati-kateak (Radio Euskadi, Euskal Irratia...).
- Plataforma digitalak (egunkari edo telebistako kanalenak, sare sozialak...).

